



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Jarraian aipatuko ditugun ezaugarriek gure enpresak aurrera egitea eta diru-sarrerak lortzea ahalbidetuko digute. Baliabide motaren arabera, lau azpigaietan banatu ditugu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak, finantza-baliabideak.


Baliabide fisikoei dagokionez, gure enpresa aurrera ateratzeko tresna garrantzitsuena ordenagailua dela deritzogu. Hortaz, guk ditugunak, Oiartzo Batxilergoak eta Oretako Lekuona biltokiak erabiliko ditugu. Horrela pentsatu dugu gastuak ahalik eta baxuenak izan daitezen; enpresa berria izanik ez dugulako beharrezkoa ikusten material berria erostea. Oso erabilgarria egiten zaigu ordenagailua; izan ere, gure produktua diseinatzeko, bezeroekin harremanetan jartzeko eta lanean aritzeko oso egokia da. Gainera aipatu ditugun bi bilgunez, Oiartzo Batxilergoak zein Lekuona biltokiak, bertan lan egiteko aukera ematen digute publikoak diren hortan. Beraz, ez genuke lokal bat alkatu beharko, berriro ere gastuak murrizteko helburuarekin.

Beharrezkoa den beste baliabide bat baliabide intelektuala da. Hari erreferentzia egiteko, aipagarria da talde koordinatu eta langilea garela. Lanak eta proiektuak entregatzeko orduan beti garaiz ibiltzen gara eta ez dugu arazorik lanean aritzeko; izan ere, denok hartzen dugu parte. Gainera, oso garrantzitsua iruditzen zaigu enpresa hontan kreatiboak izatea eta jada ikusi dugu bagarela. Hortaz, esan genezake gu, enpresa honen kideak, baliabide intelektuala garela.

Hurrengo ezaugarri-taldeari dagokionez, ezinbestekoa da giza baliabideak garrantzitsuenak direla azpimarratzea, pertsonen eramango dugulako lana aurrera. Nabarmena da langile ugari beharko ditugula azpimarratzea, baina lana oso pisutsua ez izateko, taldeko kide bakoitzak lan zehatzak edukiko ditu, eta hauek gauzatuko dituzten langileak kontratatu beharko dituzte ere. Hori argi azaltzeko, eskema bat egitea ideia




ona iruditu zaigulakoan, hurrengoa da gure enpresaren atzean ikusten ez den sostengua:



Taldeko kide bakoitza aspektu zehatz batzuen zuzendariak izango dira, adibidez, marketing zuzendariak marketingarekin eta publizitatearekin zerikusia duen guztia kontrolatu eta zuzenduko du.

Azkenik, Finantza-baliabideei dagokionez, bankuari mailegu bat eskatuko diogu gure proiektua hasteko. Mailegu hori hasiera batean diru sarrera bat izango da, gure enpresak aurrera egiteko; halaber, etorkizunea begira, mailegu hori kostu bat izango da guretzat, izan ere, etorkizunean, mailegu hori bankuari bueltatu beharko diogu. Maileguaren kopurua ez da ez handia ez txikia izango, izan ere, dirua beharko dugu alde batetik, enpresaren ofizina nagusia lortzeko, horrez gain, hasierako jendea kontratatzeko eta haiei dagozkien kopurua emateko, eta, horrez gain, materiala



erosteko. Hori guztia kontuan izanda, 200.000€ ko mailegua eskatzea aurreikusten dugu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, argi dago gure proiektua aurrera eramateko behar ditugun baliabideak funtsezkoak izango direla. Hauek ondo aprobetxatzeko eta zerbitzu onena eskaintzeko dena taldeko kideek zuzendu eta kontrolatuko dugu, beti ere guretzat hain garrantzitsua den gertutasuna adieraziz eta gure helburu eta ideiak mantenduz.